

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDALA

*Eraginkortasun energetikoaren udal ordenantza. Behin betiko onarpena.*

2020ko irailaren 24an, Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak Eraikuntzaren Eraginkortasun Energetikoari buruzko Udal Ordenantzari hasierako onespina ematea erabaki zuen, eta espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Iragarkia 2020ko urriaren 13an argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (195. zk.), eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasi zen zenbatzen 30 egun balioduneko epea.

Azaroaren 24an amaitu zen erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko epea, eta Xabat Oregi Isasi jaunak aurkeztutako alegazio-idazki bakarra jaso da. Bertan, ordenantzaren testuan aldatuta tekniko batzuk egitea proposatzen da, I. eranskinean jasotako energia-eraginkortasuneko eskakizun jakin batzuei eragiten dietenak, bai eta III. eranskinean jasotako ordenantza betetzen dela egiaztatzeko fitxa jakin batzuei ere.

Osasun eta Ingurumen zuzendariak alegazioen idazkiak zertu ondoren, eta dagokion balorazio teknikoa egin ondoren, 2020ko abenduaren 22ko Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen Udalbatzarrari jarraian transkribatu den proposamena helaraztea:

ERABAKIAK

**Lehenengoa:** Onartzea Xabat Oregi Isasi jaunak Eraikuntzako Eraginkortasun Energetikoaren Udal Ordenantzaren testuari aurkeztutako alegazioak, «Etxebizitza-erabilera» gutxieneko energia elektrikoa sortzeko eskakizunei dagokien aplikazio-eremuan sartzeari buruzkoa izan ezik (I. eranskineko 3.5.1 puntua).

**Bigarrena:** Eraikuntzako Eraginkortasun Energetikoaren Udal Ordenantza behin betiko onartzea, onartu diren alegazioak gehitu ondoren.

**Hirugarrena:** Ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, indarrean sar dadin.

Indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro baita.

Akordio hauek bide administratiboa agortzen dute, beraz, Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46 artikuluei jarraiki, ados ez dagoenak bi hilabete ditu errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen honen hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Donostia, 2021eko otsailaren 8a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, udalbatzako idazkari nagusia. (934)

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

*Aprobación definitiva de la ordenanza municipal de eficiencia energética.*

El 24 de septiembre de 2020, el Excmo. Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Municipal de Eficiencia Energética en la Edificación y someter el expediente al trámite de información pública por el plazo de 30 días hábiles para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Publicado el anuncio el día 13 de octubre de 2020 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (Boletín n.º 195), el plazo de 30 días hábiles comenzó a contarse a partir del día siguiente al de la publicación.

Finalizando el día 24 de noviembre el plazo para la presentación de reclamaciones y sugerencias, se ha recibido un único escrito de alegaciones, presentado por D. Xabat Oregi Isasi, en el que propone realizar una serie de modificaciones técnicas en el texto de la Ordenanza, que afectan a determinadas exigencias de eficiencia energética contenidas en el Anexo I, así como a determinadas fichas de comprobación del cumplimiento de la Ordenanza contenidas en el anexo III.

Tras el análisis de los escritos de alegaciones por parte por parte del Director de Salud y Medio Ambiente y realizada la correspondiente valoración técnica, el 22 de diciembre de 2020 la Junta de Gobierno Local acordó elevar al Ayuntamiento Pleno la propuesta que se transcribe a continuación:

ACUERDOS

**Primero:** Estimar íntegramente las alegaciones presentadas por D. Xabat Oregi Isasi al texto de la Ordenanza Municipal de Eficiencia Energética en la Edificación, salvo la relativa a la inclusión del «uso de vivienda» dentro del ámbito de aplicación correspondiente a las exigencias de generación mínima de energía eléctrica (punto 3.5.1 del anexo I).

**Segundo:** Aprobar definitivamente la Ordenanza Municipal de Eficiencia Energética en la Edificación, una vez incorporadas todas y cada una de las alegaciones que han sido estimadas.

**Tercero:** Publicar el texto íntegro de la Ordenanza en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, a efectos de su entrada en vigor.

La entrada en vigor se producirá al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, por haber transcurrido ya el plazo previsto en el artículo 65.2. de la Ley, de 2 de abril, 7/1985 reguladora de las bases del régimen local.

Estos acuerdos ponen fin a la vía administrativa de manera que, conforme a las previsiones de los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa podrá ser impugnado directamente ante la sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de 2 meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

San Sebastián, a 8 de febrero de 2021.—El secretario general de la corporación, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga. (934)

*Eraikuntzako energia eraginkortasunari buruzko udal ordenantza.*

#### ZIOEN AZALPENA

Donostiak, inoiz ez bezalako erronkei egin behar die aurre, arrazoi hauek direla eta: klima aldaketa mugatzeko eta egoera horretara egokitzeko beharra, energia inportazioekiko menderotasun handia, eta, azkenik, energia baliabideak urri izatea.

Kezka hori bera dute Europar Batasunean ere, eta horrenbestez, EBk konpromiso hau hartu zuen Klima Aldaketaren Aurkako Parisko Akordioan (2015): berotegi efektuko gasen isuririk % 40 gutxitzea 2030. urterako, eta % 80-95, 2050. urterako. Era berean, azken hamarkadan, Europar Batasunak zenbait arau ezarri ditu eraikuntzako energia eraginkortasunaren esparruan; besteak beste, hauek aipatu behar dira: 2010/31/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2010eko maiatzaren 19koa, eraikinetako energia eraginkortasunari buruzkoa; eta 2012/27/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko urriaren 25ekoa, energia eraginkortasunari buruzkoa.

Eraikinetako energia eraginkortasunari buruzko 2010/31/EB Zuzentarauak, 2010eko maiatzaren 19koak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, adierazten du 2018ko abenduaren 31tik eraikitzen diren eraikin berrietan energia kontsumoak ia hutsala izan behar duela. Gainera, 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/UE Zuzentarauak, efizientzia energetikoari buruzkoak, ohartarazten zuen 2020an Europar Batasunean oinarritako energia kontsumoan % 20 aurreztu ahal izatera heltzeko, lege esparrua eguneratu beharra zegoela. Aurrerago, 218/844 Zuzentarauak, 2018ko maiatzaren 30ekoak, aipatutako bi zuzentarauak aldatu zituen.

Klima aldaketaren eta erregai fosilen erabileraren testuinguruan, gauza jakina da eraikinek eta horietan kontsumitzen den energiak eragin handia dutela munduko energia kontsumoan. Hala, eraikinek Europar Batasuneko azken energia kontsumoaren % 40 hartzen dutela kalkulatu da, eta tokiko eremuari dagokionez, Donostian egiten diren CO<sub>2</sub> isurien % 21,7 (2015) eragiten duela eraikinen jarduerak. Hori dela eta, lehendik dagoen eraikuntza parkeetako jarduketak funtsezkoak dira horien energia kontsumoa murrizteko.

Klima aldaketa mundu mailako arazoa da, baina, zalantzarik gabe, estatuek eta autonomia erkidegoek gai horretan bultzatzen dituzten ekintzez eta dauzkaten eskumenez gain, hiriek eta udalerriek ere beren funtzioa bete behar dute helburu horiek lortzeko; hain zuzen, hala aitortu zen Parisko Akordioan. Era berean, eraikinetan energia aurreratzeko eta energiaren eraginkortasuna lortzeko egiten diren ekintzek inguru hurbilaren -herritarren osasuna eta bizi kalitatea- hobekuntzan laguntzen dute; izan ere, ekintza horien bitartez, ez da gas kaltegarriak isurtzen ingurumenara eta eraikinetako erosotasuna hobetzen da.

Azken hamarkadan, hiriak zenbait konpromiso hartu ditu klima aldaketa arintzeko eta egoera horretara egokitzeko, bai eta energia segurua, iraunkorra eta eskuragarria bultzatzeko ere. Besteak beste, konpromiso hauek aipatu behar dira: Klimaren Aldeko Alkateen Ituna sinatzea eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana onartzea (2008), Klima Aldaketara Egokitzearen Aldeko Alkateak ekimenarekin bat egitea (2014), Tokiko Agenda 21en III. Ekintza Plana onartzea, Hiriberdea 2030 ingurumen estrategia osatzea, eta NBEn idazkari nagusiak bultzatutako Alkateen Konpromisoa (Compact of mayors) izeneko ekimenarekin bat egitea (2015). Horrez gain, 2018ko ekainaren 5ean Klima DSS 2050 Jarduketara Plana onartu zuen Udalak.

Testuinguru horretan, onartutako planak garatzeko tresna gisa, eraikinetako energia eraginkortasunari eta ingurumen kalitateari buruzko udal ordenantza onartu zen 2009ko maiatzaren 29an, hiriko eraikin berrietan eta birgaitutako eraikinetan ingurumeneko eta energia eraginkortasunerako irizpideak ezartzeko eta betearazteko. Ordenantza hori indarrean egon da gaur egun arte, baina, argitaratu zenetik, goragoko mailako arauak

*Ordenanza municipal de eficiencia energética en la edificación.*

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

San Sebastián se enfrenta a retos sin precedentes debidos a la necesidad de limitar y adaptarse al cambio climático, a la fuerte dependencia de las importaciones de energía y, por último, a la escasez de recursos energéticos.

Esta preocupación también se extiende al ámbito de la Unión Europea, y, como consecuencia de ella, ésta adquirió en el Acuerdo de París por el Cambio Climático (2015) el compromiso de reducir las emisiones de gases de efecto invernadero en un 40 % para 2030 y en un 80-95 % para el 2050. Asimismo, en la última década, la Unión Europea ha adoptado distintas normas en el ámbito de la eficiencia energética en la edificación, entre las que cabe citar la Directiva 2010/31/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 19 de mayo de 2010, relativa a la eficiencia energética de los edificios, y, la Directiva 2012/27/UE del Parlamento Europeo y del Consejo de 25 de octubre de 2012, relativa a la eficiencia energética.

La Directiva 2010/31/UE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 19 de mayo de 2010, relativa a la eficiencia energética de los edificios indica que los nuevos edificios construidos a partir del 31 de diciembre de 2018 sean de consumo energético casi nulo. Asimismo, la Directiva 2012/27/UE de Eficiencia Energética aprobada el 25 de octubre de 2012 advertía la necesidad de actualizar el marco legal en materia de eficiencia energética para llegar a 2020 con un ahorro del 20 % en el consumo de energía primaria de la Unión Europea. Posteriormente, ambas Directivas han sido modificadas mediante la Directiva 2018/844 de 30 de mayo de 2018.

En este contexto de cambio climático y de uso de energías fósiles, la energía consumida en el acondicionamiento de los edificios tiene gran incidencia en el consumo energético global. Así, se estima que los edificios representan el 40 % del consumo de energía final de la Unión Europea y, en el ámbito local, la actividad en los edificios supone el 21,7 % (2015) de las emisiones de CO<sub>2</sub> de Donostia / San Sebastián. Por lo tanto, las actuaciones en el parque edificatorio existente son esenciales para reducir este consumo energético.

El cambio climático es un problema global pero no cabe duda que, además de las acciones y competencias estatales y autonómicas en la materia, las ciudades y municipios deben jugar su propio papel en la consecución de tales objetivos, tal como fue reconocido en el texto aprobado en el Acuerdo de París. Asimismo, las acciones de ahorro y eficiencia energética en los edificios repercute también en la mejora del entorno próximo -en la salud y calidad de vida de los ciudadanos- al evitar la emisión de gases nocivos al medio ambiente y al mejorar el confort en los edificios.

En la última década, la ciudad ha adquirido una serie de compromisos para la mitigación y la adaptación al Cambio Climático, y para impulsar una energía segura, sostenible y asequible. Entre ellos destacan la firma del Pacto de Alcaldes por el Clima y la aprobación del Plan de Acción de Energía Sostenible en 2008, la adhesión a la iniciativa Alcaldes por la Adaptación al Cambio Climático en 2014, y la aprobación III Plan de Acción de Agenda 21 Local, la elaboración de la estrategia ambiental Hiriberdea 2030 y la adhesión al Compromiso de Alcaldes (Compact of mayors) impulsado por el secretario general de la ONU en 2015. Asimismo, con fecha 5 de junio de 2018 el Ayuntamiento aprobó el Plan de Acción Klima DSS 2050.

En ese contexto, como herramienta para el desarrollo de los planes aprobados, el 29 de mayo de 2009, se aprobó la Ordenanza Municipal de Eficiencia Energética y Calidad Ambiental de los Edificios para la fijación y la exigencia de criterios ambientales y de eficiencia energética en los edificios de nueva construcción y rehabilitados de la ciudad. Esta Ordenanza ha estado vigente hasta la actualidad pero, desde su publicación,

onartzuz eta aldatuz joan dira; horrenbestez, ordenantzaren eraginkortasuna murriztu da, eta zaildu egin da zuzen izapidetzea.

Alde batetik, estatu mailako bi arau aldatu egin dituzte, hauek, hain zuzen: Eraikigintzaren Kode Teknikoa (gaztelaniaz CTE) eta Eraikinen Instalazio Termikoen Araudia (gaztelaniaz RITE).

Bestalde, ordenantzaren zenbait atal ezabatu egin behar dira, gaur egun araudi berrien bitartez araututako zenbait gai arautzeko jaso baitziren; hala gertatzen da, esaterako, Eraikuntza eta Eraispén Hondakinak sortzeari eta kudeatzeari loturiko atalarekin (112/2012 Dekretuak arautzen du), bai eta Eraikinetako Energia eraginkortasunaren Ziurtagiriari buruzko atalarekin ere 25/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa.

Onartu zenetik hamar urte baino gehiago igaro ondoren, beste ordenantza bat idatzi behar da, gaur egungo araudira eta udalak energia eraginkortasunean eta klima aldaketaren aurkako borrokan hartutako konpromisoek ekarri dituzten eskakizunetara egokitzeko.

Ordenantza honen bitartez, titulartasun publikoko edo pribatuko eraikinetan, instalazioetan eta eraikuntzetan (berrietan nahiz lehendik daudenetan) diseinurako, aurrezpenerako, energia eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien erabilerarako neurriak ezartzea sustatu nahi da. Hala, ordenantza honen helburua da eraikuntza garapen berria eta energiaren ikuspegitik eraginkorra lortzea, eta energia eraginkortasunari buruzko aurreko ordenantzarekin hasitako bideari jarraipena ematea. Horretarako, arlo hauek arautuko dira: energia kontsumoa eta eskaera mugatzea, energia eraginkortasuneko instalazioak erabiltzea, eta energia berriztagarriak, ordezkioak eta garbiak erabiltzen hastea.

Ordenantza berriak baditu beste helburu batzuk ere: ordenantzaren egitura argitzea eta, aurrekoarekin alderatuta, horren administrazio jarduna sinplifikatzea, errazago ulertzeko eta horren izapidetze prozesua arintzeko, bai eta Ordenantza aplikatuz zenbat energia aurrezten den eta zenbat isurtzen den modu objektiboan eta egiaztagarrian neurtzeko oinarriak ezartzeko ere; horretarako, eraikinen energia eraginkortasunaren ziurtagiriak emango dira, bai eraikin berriak egitean bai lehendik zeuden eraikinak birgaitzean.

Horregatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aipaturiko arautze onaren printzipioak betetzen eta justifikatzen dira ordenantzaren testuan, onartu beharreko neurritzat hartzen baitu udalak, efikazia eta efizientzia printzipioekin zuzenean erlazionatuta dagoenez gero; gainera, argiro egiaztatuta geratzen da onartzean interes orokorra lortu nahi duela udalak, lortu nahi duen helburua, bestalde, udalak dituen baliabideetara egokitzen delarik.

8 artikulua, hiru titulutan antolatutak, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu ordenantzak. Gainera, hiru eranskin ditu: lehenengo eranskinak energia eraginkortasunerako eskakizunak definitzen ditu; bigarrenak inguratzailerako termikoa birgaitzearekin loturiko jarduketak, energia eraginkortasunaren ordenantza aplikatu beharrekoak, eta, hirugarrenak, ordenantza betetzen den egiaztatzeko fitxak jasotzen ditu.

I. tituluan arauaren xedapen orokorrak jasotzen dira, hala nola helburua eta xedea edo zein pertsonak duten ordenantza betetzeko beharra. II. tituluak ordenantza betetzen dela egiaztatzeko modua arautzen du. Azkenik, ordenantza betetzen dela bermatatzeko dihardu III. tituluak.

se han ido aprobando y modificando normas de rango superior concurrentes con la misma que ha mermado su efectividad y dificultan su correcta tramitación.

Por una parte, tenemos dos normas de ámbito estatal que han sufrido modificaciones; el Código Técnico de Edificación, CTE y el Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios, RITE.

Por otra parte, procede eliminar partes de la ordenanza que se redactaron al objeto de regular aspectos que hoy en día se encuentran regulados por nuevas normas, tal y como sucede con la producción y gestión de los Residuos de Construcción y Demolición, que se encuentran regulados por el Decreto 112/2012, o la Certificación Energética de los Edificios, regulada por el Decreto 25/2019, de 26 de febrero, de certificación de la eficiencia energética de los edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco, su procedimiento de control y registro.

Pasados más de diez años desde su aprobación, procede redactar una nueva Ordenanza con el fin de adaptarla a la normativa existente y a las exigencias derivadas de los compromisos adquiridos por el ayuntamiento en materia de eficiencia energética y lucha contra el cambio climático.

La presente Ordenanza se ocupa de promover la implementación de medidas de diseño, ahorro, eficiencia energética y utilización de energías renovables en los edificios, instalaciones y construcciones, nuevas y existentes, ya sean estos de titularidad pública o privada. Así, es objetivo de esta Ordenanza la obtención de un desarrollo edificatorio nuevo y existente energéticamente eficiente, y dar continuidad al camino iniciado con la anterior ordenanza de eficiencia energética. A tal efecto, se regulan la limitación del consumo y de la demanda energética, la utilización de instalaciones eficientes energéticamente y la introducción de energías renovables, alternativas y limpias.

Otros objetivos de la nueva Ordenanza son la clarificación de su estructura y simplificación administrativa respecto a la anterior para facilitar su comprensión y para agilizar la tramitación de la misma, así como el establecimiento de las bases para una cuantificación objetiva y certificable de los ahorros energéticos y de emisiones de CO<sub>2</sub> obtenidos de la aplicación Ordenanza, mediante la entrega tanto en obra nueva como en las rehabilitación de las certificaciones energéticas de los edificios.

Por todo ello, en el texto de la presente ordenanza se observan y justifican los principios de buena regulación mencionados en la ley 39/2015 de Procedimiento administrativo, ya que se considera una medida de necesaria aprobación, que está directamente relacionada con los principios de eficacia y eficiencia, quedando claramente acreditado que con su aprobación se pretende satisfacer el interés general, acomodándose a su vez el fin perseguido a los recursos municipales existentes.

La Ordenanza consta de 8 artículos organizados en tres títulos, una disposición transitoria, una derogatoria y dos disposiciones finales. Cuenta además con tres anexos, el primero relativo a la definición de las exigencias de eficiencia energética a cumplir, el segundo relativo definición las intervenciones en la envolvente térmica para las cuevas es de aplicación la Ordenanza y el tercero recoge las fichas para la comprobación del cumplimiento de la Ordenanza.

En el título I se regulan las disposiciones generales de la norma tales como objeto y ámbito de aplicación, o como las personas responsables del cumplimiento de la Ordenanza. El título II regula la verificación del cumplimiento de la Ordenanza. Finalmente, el título III es el relativo a la garantía del cumplimiento de la Ordenanza.

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Araudiaren helburua eta xedea.

Udalerriko eraikinek energia eraginkortasunaren aldetik bete behar dituzten eskakizunak zehaztea da araudi honen helburua.

Eraikuntza garapen iraunkor baten alde egitea da helburua, eta horretarako, energia eraginkortasunaren parametroak txertatuko dira Donostiako udalerriko eraikinetan. Parametro horiek ordenantza honen eranskinetan garatu dira, eta energia aurrezte eta atmosferara berotegi efektuko gas kutsakor gutxiago isurtzea dute xede, betiere eraikin barruko erosotasun baldintzei eragin gabe.

Horretarako, ordenantza honetan gai hauek arautu dira:

- Ordenantzaren aplikazio eremua.
- Energia berriztaezinen kontsumoa hainbat eraikin tipologiatan.
- Hainbat eraikin tipologiaren energia eskaera.
- Energia instalazioen ezaugarriak.
- Energia termiko berriztagarriaren ekarpena.
- Energia elektriko berriztagarriaren ekarpena.

Eraikuntzako energia eraginkortasunari buruzko udal ordenantza hau Donostiako Hiri Antolamenduko Udal Plan Orokorra-ren Hirigintzako Arauak garatzeko araudia da, plan horren 5. artikuluko B atalaren arabera.

Ordenantza honetan, eraikinetako portaera termikoaren eta energetikoaren arloan indarrean dauden goragoko mailako araudi-ekin alderatuz balio bereizgarria eskatzen duten alderdiak zehaztuko dira soilik: Eraikigintzaren Kode Teknikoa (gaztelaniaz CTE HE) eta Eraikinen Instalazio Termikoen Araudia (gaztelaniaz RITE). Horrenbestez, ordenantza hau betetzeaz gain, estatuko araudi horietan bietan zehaztutako gutxieneko eskakizunak bete beharko dituzte, eta horrez gain, aintzat hartu beharko dituzte ordenantza honetan definitutako balio edo eskakizun berriak.

#### 2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza hau egoera hauetan aplikatu behar da:

1. Eraikin berriak egitean.
2. Lehendik dauden eraikinetan esku hartzean:
  - a. Handitzea: eraikitako azalera edo bolumena handitzen den eremuetan.
  - b. Berritzeak.
  - c. Erabilera aldatzea.
3. Jarduketa mota bakoitzerako aplikazio eremu espezifikoa I. eta II. eranskinetan adierazi da.
4. Aplikazio eremutik kanpo geratuko dira:
  - a. Babestutako edo katalogatutako eraikinak, organo eskumendunak hala erabakitzen duenean eraikinean babestuta dauden elementuei dagokienez.
  - b. Proiektu teknikorik behar ez duten obrak.
  - c. Behin-behineko erabilerrako eraikinak.
  - d. Industriako (salbu merkataritzako edo, oro har, hirugarren sektoreko funtzioak barne hartzen dituztenak), defentsako eta nekazaritzako eraikinak edo horien zatiak, bizitegi erabilerririk gabeak, energia eskari txikikoak. Energia eskari txikikotzat jotzekoak dira konfort baldintza tekniko jakin batzuk bermatu beharrik ez dutenak, esaterako, lantegiak eta industria prozesuetakoak.

## TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1. Finalidad y objeto de la regulación.

Es objeto de esta regulación la determinación de los requisitos que en materia de eficiencia energética deben cumplir los edificios del término municipal.

El objetivo es la contribución a un desarrollo edificatorio sostenible mediante la incorporación en los edificios del término municipal de San Sebastián de los parámetros de eficiencia energética que se desarrollan en los Anexos de la presente Ordenanza, para ahorrar energía y disminuir las emisiones contaminantes de gases de efecto invernadero a la atmósfera, sin menoscabo de las condiciones interiores de confort.

A tal efecto se regula en la presente ordenanza:

- El ámbito de aplicación de la ordenanza.
- El consumo energético no renovable de las diferentes tipologías edificatorias.
- La demanda energética de las diferentes tipologías edificatorias.
- Las prestaciones de las instalaciones energéticas.
- La contribución de energía renovable térmica.
- La generación de energía renovable eléctrica.

Esta Ordenanza Municipal de Eficiencia Energética en la Edificación es normativa de desarrollo de las Normas Urbanísticas del Plan General Municipal de Ordenación Urbana de Donostia / San Sebastián, según el artículo 5 apartado B de este Plan.

Esta ordenanza únicamente definirá los aspectos que exigen un valor diferencial respecto a las normativas de rango superior existentes en relación al comportamiento térmico y energético de los edificios: el Código Técnico de la Edificación (CTE-HE) y el Reglamento de Instalaciones Térmicas de los Edificios (RITE). En consecuencia, además del cumplimiento de esta ordenanza se tendrá que cumplir con las exigencias mínimas definidas por estos dos reglamentos nacionales y, a su vez, considerar los nuevos valores o las nuevas exigencias definidas en esta ordenanza.

#### Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Esta Ordenanza es de aplicación en los siguientes supuestos:

1. Edificios de nueva construcción.
2. Intervenciones en edificios existentes:
  - a. Ampliación: aquellos espacios en los que se incrementa la superficie o el volumen construido.
  - b. Reformas.
  - c. Cambio de uso.
3. El ámbito de aplicación específico para cada tipo de intervención se indica en el anexo I y en el anexo II.
4. Se excluyen del ámbito de aplicación:
  - a. Los edificios protegidos o catalogados cuando así se establezca por el órgano competente sobre la protección en sus elementos protegidos.
  - b. Obras que no necesitan proyecto técnico.
  - c. Construcciones para un uso provisional.
  - d. Edificios industriales (excepto las que incluyan funciones de carácter comercial o terciario), de la defensa y agrícolas no residenciales, o partes de los mismos, de baja demanda energética. Aquellas zonas que no requieran garantizar unas condiciones térmicas de confort, como las destinadas a talleres y procesos industriales, se considerarán de baja demanda energética.

e. 50 m<sup>2</sup>-tik beherako azalera erabilgarria duten isolatuta-ko eraikinak.

f. Duten erabilera dela eta une oro zabalik dauden eraiki-nak edo horien zatiak.

g. Jarduerak egiten diren esparruak, solairu oso bat baino gutxiago hartzen dutenak.

h. Eraikineko irisgarritasun baldintzak hobetzeko egin behar diren obrak. Halakotzat hartzen dira eraikuntza prozesuan egiten diren jarduketak eta horiek eragiten dituzten beste edozein jarduketa, eraikinean irisgarritasuna bermatzeko edo bertako irisgarritasun baldintzak hobetzeko elementuak ezartzea edo ordezkatzeko xede dutenak; adibidez: igogailuak, arrapalak, plataformak eta helburu bera duen beste edozein elementu, nahiz eta fatxadari, teilatuei, egiturei edo eraikinaren beste edozein alderdiri eragin.

### 3. artikulua. Ordenantza betetzea.

Ordenantza honetako eskakizunak proiektuan bertan egiaz-tatu behar dira, eta bete egin beharko dira eraikina eraikitzean. Eskakizun horiek betetzen direla egiaztatzeke, l. eranskinean jar-duketa mota bakoitzerako zehazten diren dokumentuetan aur-keztu beharko dira.

Energia eskakizunak betetzeko, beste konponbide batzuk ba-liatu ahal izango dituzte, betiere, udal zerbitzu teknikoaren arabera, dokumentu bidez egiaztatzen badute jarduketak ordenantzan ja-sotako baldintzak eta ordenantzaren bidez lortu nahi diren helbu-ruak betetzen dituztela. Beste konponbide horiek gai horretan es-kumena duen teknikari batek idatzi eta sinatu beharko ditu, eta indarrean dagoen araudiaren arabera onetsi beharko dira.

Lortu nahi ziren ezaugarriak lortu ezin diren egoeretan, udal administraziozko zerbitzu tekniko eskumendunen aurrean egiaz-tatu beharko da zergatik den ezinezkoa proiektuan xede hori lor-tzea, eta hala badagokio, beste neurri batzuen bitartez konpen-tsatu beharko da.

### 4. artikulua. Administrazio prozeduraren arauak.

Administrazio prozedurari dagokionez arau honetan xedatzen ez diren gaietarako, 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Adminis-trazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena ezartzekoan, zehaztutako arauak aplikatu behar dira.

## II. TITULUA

### ORDENANTZA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA

#### 5. artikulua. Proiektuen sailkapena.

1. eranskineko 1. taulako irizpideen arabera sailkatuko dira proiektuak, izapidetu beharreko proiektuak zer baldintza bete behar dituen zehazte aldera.

#### 6. artikulua. Izapidetzea.

Hirigintza lizentzia izapidetzeko aurkezten den proiektuare-kin batera, ordenantza honen 1. eranskinaren atal bakoitzean deskribatutako dokumentuak aurkeztu beharko dira. 1. eranski-neko ataletan zehaztutako dokumentu guztiek proiektu egilea-ren sinadura izan beharko dute.

Hirigintzako obra lizentzia emateko izapidetzen den espe-dientean, eta baimen hori eman ala ez ebatzi aurretik, udaleko zerbitzu tekniko eskumendunek egindako txosten bat izan behar da; aurkeztutako dokumentuak ikusita, gauzatu beharreko jarduketa motaren arabera proiektuak arau honetako zer eska-kizun bete behar dituen zehaztuko da bertan.

Obrak abian hartzeko zuintzeta edo obra hasierako akta be-harrezkoa denean, egintza hori egitean, aurkeztu ahal izango da lizentzia eman aurretiko txostenean arau hori betetzen dela egiaztatzeke eskatutako dokumentazioa.

e. Edificios aislados con una superficie útil total inferior a 50 m<sup>2</sup>.

f. Las edificaciones o partes de las mismas que, por sus características de utilización, estén abiertas de forma permanente.

g. Recintos que alberguen actividades que ocupen menos de una planta completa.

h. Las obras necesarias para la mejora de las condiciones de accesibilidad del edificio. Entendidas tales obras como inter-venciones constructivas en la edificación y cualquier otra actua-ción derivada de las mismas, dirigidas a la instalación o sustitución de elementos para dotar o mejorar las condiciones de ac-cesibilidad del edificio, tales como: ascensores, rampas, plata-formas, o cualquier otro elemento con la misma finalidad, aun-que afecten a fachadas, cubiertas, estructuras o cualesquiera otras partes de la edificación.

### Artículo 3. Cumplimiento de la ordenanza.

Las exigencias contenidas en esta Ordenanza deberán justi-ficarse en el proyecto y cumplirse en la construcción de los edi-ficios. El cumplimiento de dichas exigencias se acreditará en la documentación que se exige entregar a cada tipo de actuación en el apartado correspondiente del anexo I.

Para alcanzar las exigencias energéticas, podrán emplear so-luciones alternativas, siempre que, a juicio de los servicios técni-cos municipales, justifiquen documentalmente que la correspon-diente intervención cumple los requisitos y objetivos perseguidos por esta Ordenanza. Estas soluciones alternativas deberán ser redactadas y firmadas por un técnico competente en la materia, y se deberán visar, con arreglo a la normativa vigente.

En los supuestos en que no fuera posible obtener las pres-taciones pretendidas, deberá justificarse ante los servicios téc-nicos competentes de la administración municipal tal imposibi-lidad en el proyecto y, en su caso, compensarse con medidas al-ternativas.

### Artículo 4. Normas de procedimiento administrativo.

En lo no previsto en esta norma respecto al procedimiento administrativo, serán de aplicación las normas presentes en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administ-rativo Común de las Administraciones Públicas.

## TÍTULO II

### VERIFICACIÓN DEL CUMPLIMIENTO DE LA ORDENANZA

#### Artículo 5. Clasificación de los proyectos.

Los proyectos se clasificarán según los criterios de la Tabla 1 del anexo 1, en aras a establecer los requisitos que debe cum-plir el proyecto a tramitar.

#### Artículo 6. Tramitación.

El proyecto que se presente para la tramitación de la licen-cia urbanística correspondiente, deberá acompañarse de la do-cumentación que se describe en cada uno de los apartados del Anexo I de la presente Ordenanza. Toda la documentación defi-nida en los apartados del anexo I deberá estar firmada por la persona autora del proyecto.

En el expediente de licencia urbanística, deberá constar, con carácter previo a su concesión, informe emitido por los ser-vicios técnicos municipales, en el que, a la vista de la documen-tación presentada, se contengan las exigencias de la presente norma según el tipo de intervención de que se trate.

En las obras en las que para el inicio de obras, sea necesaria acta de replanteo o tira de cuerdas, podrá posponerse al cumplimiento de ese trámite, la presentación de la documenta-ción que se establezca en el informe previo a la concesión de li-cencia respecto al cumplimiento de esta norma.

Obra amaitu ostean, lehen erabilerako lizentzia beharrezkoa denean, ordenantzaren I. eranskinean adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dira, obra amaierako nahitaezko dokumentuekin batera. Era berean, Industria Sailean legeztatuta dagoela egiaztatzen duten dokumentuen kopia aurkeztu beharko dira, arau honen arabera energia hartzeko eta sortzeko ezarri beharreko instalazioei dagozkienak.

Lehen erabilerako lizentzia behar ez den lanetan, nahitaezkoa izango da aurkeztea, hilabeteko epean obra amaitzen denetik kontatzen hasita, I. eranskinean adierazitako dokumentuak, obra amaierako ziurtagiria eta eguneratutako dokumentuak, proiektu egileak sinatuta.

### III. TITULUA

#### ORDENANTZA BETETZEN DELA BERMATZEA

##### 7. artikulua. Ikuskapena, kontrola eta diziplina.

Arau honen xedapenak betetzen direla zaindu beharko du Udalak, legez dagozkion ahalmenak erabilita. Zoruari, hirigintzari eta etxebizitzari buruzko indarrean dagoen legeekin bat, ordenantza hau betetzen dutela ikuskatzeaz, kontrolatzeaz eta diziplinaren arabera izateaz arduratuko da Udala.

##### 8. artikulua. Ordenantza honetako baldintzen aurkako jarduketak.

Udalak jakiten duenean ordenantza hau aplikatuz eman den hirigintza lizentzian zehaztutako arauak hautsi direla edo ez direla baldintzak bete, lurzoru, hirigintza eta etxebizitza arloaren lotuta indarrean dagoen legerian araututakoaren arabera jokatuko du.

##### Xedapen iragankorra.

Ordenantza hau ez da aplikatuko udaleko obra lizentzia xedapen hau indarrean sartu aurretik eskatu den eraikuntza berriko obretan nahiz lehendik dauden eraikinetako jarduketetan.

##### Xedapen indargabetzailea.

Honen bitartez, indargabe geratzen da Eraikinetako energia eraginkortasunari eta ingurumen kalitateari buruzko udal ordenantza, 2009ko maiatzaren 29an onartua.

##### Azken xedapenak.

**Lehena:** Ordenantza honen goragoko mailako arauak, Ordenantzan arautako gaiari eragiten dietenak, indarrean jartzean, automatikoki aplikatuko dira, eta horrek ez dio eragingo, gerora, ordenantza honetan, beharrezkoak diren arloetan, egin daitezkeen aldaketei, ordenantza honetan ezarritako baldintzak zorrotzagoak direnean izan ezik.

**Bigarrena:** Ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

### I. ERANSKINA

#### Ordenantzaren energia eraginkortasunerako eskakizunak.

I. eranskin honetako zehaztapenak hainbat obra motatan aplikatuko dira, jarduketa eremuaren, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak definitutako erabileraren eta sustapen edo titulartasun ezaugarrien arabera eta atal bakoitzean adierazitako zehaztasunekin. Ordenantza honetan, bederatzita jarduketara mota bereizi dira (ikus 1. taula).

Proiektuak sailkatuko dira 1. taulako irizpideen arabera.

Tras finalizar la obra, cuando sea necesaria la licencia de primera utilización, junto con todo el resto de documentación preceptiva, deberá presentarse la documentación incluida en el Anexo I de la Ordenanza y la copia de los documentos acreditativos de la legalización ante el Departamento de Industria correspondientes a cada instalación de captación y generación de energía exigidas por esta norma.

Cuando no sea necesaria la licencia de primera utilización, en el plazo de 1 mes desde la finalización de la obra, se presentará la documentación indicada en el anexo I, el Certificado Final de Obra y documentación actualizada, firmadas por la persona autora del proyecto.

### TÍTULO III

#### GARANTÍA DEL CUMPLIMIENTO DE LA ORDENANZA

##### Artículo 7. Inspección, control y disciplina.

El Ayuntamiento velará por el cumplimiento de las previsiones de la presente norma mediante el ejercicio de las potestades que legalmente tiene atribuidas. La inspección, control y disciplina del cumplimiento de esta Ordenanza se realizará con arreglo a lo dispuesto en la legislación vigente en materia de suelo, urbanismo y vivienda.

##### Artículo 8. Actuaciones contrarias a las prescripciones de esta ordenanza.

Cuando el Ayuntamiento tenga conocimiento de que se están realizando obras que contravengan o incumplan las condiciones que se exijan en la licencia urbanística en aplicación de la presente Ordenanza, actuará con arreglo a lo dispuesto en la legislación vigente en materia de suelo, urbanismo y vivienda.

##### Disposición transitoria.

Esta Ordenanza no será de aplicación a las obras de nueva construcción y a las intervenciones en edificios existentes que tengan solicitada la licencia municipal de obras con anterioridad a la entrada en vigor de esta disposición.

##### Disposición derogatoria.

Por la presente queda derogada la Ordenanza Municipal de eficiencia Energética y Calidad Ambiental de los Edificios, aprobada el 29 de mayo de 2009.

##### Disposiciones finales.

**Primera:** La entrada en vigor de normas de rango superior a las de esta Ordenanza, que afecten a las materias reguladas en la misma, determinará la aplicación automática de aquellas, sin perjuicio de una posterior adaptación, en lo que fuere necesario, de esta Ordenanza, salvo que estas normas establezcan condiciones menos exigentes que las establecidas en la propia ordenanza.

**Segunda:** La Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

### ANEXO I

#### Exigencias de eficiencia energética de la ordenanza.

Las determinaciones de este Anexo I se aplicarán a las distintas obras de acuerdo al ámbito de la intervención, al uso según el Plan General de Ordenación Urbana de Donostia / San Sebastián y a las características de la promoción o titularidad, con las precisiones que se indiquen en cada apartado. Esta ordenanza distingue nueve tipos de intervención (ver Tabla 1).

Los proyectos serán clasificados según los criterios definidos en la siguiente Tabla 1.

1. taula. Energia eraginkortasunari buruzko Donostiako udal ordenantzan definitutako jarduketa moten sailkapena

Jarduketa eremua	Erabilera (HAPO)	Sustapena edo titulartasuna	Jarduketa mota
Eraikin berriak eraikitzeo obrak; berreraikitzeo eta ordezkatzeko obrak; husteko obrak; eraikinak handitzeko obra; banaketaren aldaketa integrala eta barruko espazioen antolaketa ekartzen duten erreforma lanak; eraikin osoaren erabilera aldatzea*	Etxebizitza erabilera	Salmenta librea	1
		Babes publikoa, titulartasun publikoa edo zuzkidura bizitokiak	2
	Beste erabilera batzuk***	Pribatua	3
		Publikoa	4
Egonkortzeko obrak; eraberritze obrak; birgaitze obrak, mantentze, kontserbazio eta apaintzeko obrak; erabilera aldaketa partziala**	Etxebizitza erabilera	Pribatua	5
		Titulartasun publikoa	6
	Beste erabilera batzuk***	Pribatua	7
		Publikoa	8
Energia sorkuntzarako sistema zentralizatuak aldatzea	Bizitegi erabilera edo hirugarren sektorekoa	Pribatua eta publikoa	9

\*Erabateko erabilera aldaketa: Eraikin osoaren erabileran egindako edozein aldaketa, baita beste erabilera batetik bizitegi erabilera, hotel erabilera, osasun zein asistentzia erabilera pasatzea, hain zuzen ere eraikin bateko goiko solairu guztietan.  
\*\*Erabilera aldaketa partziala: Beste erabilera batetik hotel, osasun zein asistentzia erabilera pasatzea, baita eraikin batean partzialki beste erabilera batetik bizitegi erabilera pasatzea partzialki, baldin eta aldaketa horrek 750 m<sup>2</sup> eraikiri baino gehiagori erasaten badio.  
\*\*\*Beste erabilera batzuk: Barruan, une oro, pertsonak egoteko prestaturiko barne esparruak dituzten eraikinak (etxebizitza eta zuzkidura bizitokiak izan ezik), beren erabilera ezaugarriak direla eta egokitzapen teknikoak behar dutenak.

Tabla 1. Clasificación de los diferentes tipos de intervención definidos por la ordenanza de eficiencia energética de Donostia- San Sebastián

Ámbito de la intervención	Uso (PGOU)	Promoción o titularidad	Tipo de intervención
Obra de nueva planta; obras de sustitución y reedificación; obras de vaciado; obras de ampliación; obras de reforma que impliquen un cambio integral de la distribución y organización de los espacios interiores; cambios de uso completo*	Vivienda	Venta libre	1
		Protección pública, titularidad pública o alojamientos dotacionales	2
	Otros usos***	Privada	3
		Pública	4
Obras de consolidación; obras de reforma; obras de rehabilitación; obras de mantenimiento, conservación y ornato; cambio de uso parcial**	Vivienda	Privada	5
		Titularidad pública	6
	Otros usos***	Privada	7
		Pública	8
Sustitución de sistemas centralizados de generación energética	Residencial o terciario	Privada y pública	9

\*Cambio de uso completo: Cualquier cambio de uso de edificio completo, así como el cambio de otro uso a residencial, hotelero, sanitario o asistencial, que se da en todas las plantas altas de un edificio.  
\*\*Cambio de uso parcial: Cambio de otro uso a hotelero, sanitario o asistencial, así como el cambio de otro uso a residencial vivienda que se da parcialmente en un edificio, siempre que el cambio afecte a más de 750m<sup>2</sup> construidos.  
\*\*\*Otros usos: Edificaciones (excluidas viviendas y alojamientos dotacionales) que contengan recintos interiores destinados a la estancia continuada de personas, que por sus características de uso, necesiten estar acondicionados térmicamente.

Eranskin honen hurrengo ataletan, 1. taulan definitutako jarduketa motek zer eskakizun bete behar dituzten deskribatzen da.

- I. 1. jarduketa mota.
- 1.1 Energia kontsumoa mugatzea.
- 1.1.1. Energia berriztaezinaren kontsumoa mugatzea.

En los siguientes apartados de este anexo se describen las exigencias que deben cumplir los distintos tipos de intervención definidos en la Tabla 1.

- I. Intervención tipo 1.
- 1.1. Limitación del consumo energético.
- 1.1.1. Limitación del consumo energético no renovable.

Eraikinaren energia primario berriztaezinaren kontsumoak ez du gainditu behar gehieneko balioa (Cep, nren, lim, gaztelaniaz); ez du gainditu behar 35 kWh/m<sup>2</sup>-urte.

Non:

– Cep, nren, lim = sistemei eman behar zaien energia primarioaren zati berriztaezina (berokuntza, hozte sistema eta etxeke ur beroa, aireztapena, hezetasunaren kontrola eta, hala badagokio, argiztapena). Kalkulatzeko, kontuan hartzen da bektore energetiko bakoitzaren osagai berriztaezinaren pasoko koefizientearen balioa.

Bizitegi erabilera pribatu unitateak dituzten eraikinetan (etxebizitzak eta zuzkidura bizitokiak), beste erabilera batzuetako unitateekin batera, energia primario berriztaezinaren kontsumoaren gehieneko balioa (Cep, nren, lim) aplikatu ahal izango zaio modu independentean erabilera berezitua duen eraikinaren atal bakoitzari. Bizitegi erabilera pribatua ez beste erabileretan (barne karga maila desberdinekin), barne karga berezitua duten atalen gehieneko balioak azaleraren arabera haztatuz lortu ahal izango da multzoaren gehieneko balioa.

1.1.2. Energia primarioaren kontsumo osoa mugatzea.

Eraikinaren energia primarioaren kontsumo osoak ez du gainditu behar gehieneko balioa (Cep, tot, lim, gaztelaniaz); ez du gainditu behar 70 kWh/m<sup>2</sup>-urte.

Non:

– Cep, tot, lim = sistemei eman behar zaien energia primarioaren balio globala (berokuntza, hozte sistema eta etxeke ur beroa, aireztapena, hezetasunaren kontrola eta, hala badagokio, argiztapena). Barne hartzen du bai hornitutako energia eta in situ ekoizitakoa bai ingurumenetik lortutakoa.

Bizitegi erabilera pribatu unitateak dituzten eraikinetan (etxebizitzak eta zuzkidura bizitokiak), beste erabilera batzuetako unitateekin batera, energia primarioaren kontsumo osoaren gehieneko balioa (Cep, tot, lim) aplikatu ahal izango zaio modu independentean erabilera berezitua duen eraikinaren atal bakoitzari. Bizitegi erabilera pribatua ez beste erabileretan (barne karga maila desberdinekin), barne karga berezitua duten atalen gehieneko balioak azaleraren arabera haztatuz lortu ahal izango da multzoaren gehieneko balioa.

1.2. Energia eskaera kontrolatzeko baldintzak.

1.2.1. Inguratzaile termikoaren transmitantzia.

Bizitegi erabilera pribatua duen eraikinaren (edo erabilera hori duen eraikin zatiaren) inguratzaile termikoaren bidezko beroaren transmisio koefiziente globalak (K) ez ditu gaindituko ondoko gehieneko balioak (Klim); CTE DB-HE1 kodearen arabera kalkulatuta:

El consumo energético de energía primaria no renovable del edificio no debe superar el valor límite (Cep, nren, lim) no debe superar 35 kWh/m<sup>2</sup>año.

Donde:

– Cep, nren, lim = parte no renovable de la energía primaria que es necesario suministrar a los sistemas (calefacción, refrigeración y Agua Caliente Sanitaria, ventilación, control de la humedad y, en su caso, iluminación). Se determina teniendo en cuenta el valor del coeficiente de paso del componente no renovable de cada vector energético.

En edificios que tengan unidades de uso residencial privado (viviendas y alojamientos dotacionales) junto a otras de distinto uso, el valor límite del consumo de energía primaria no renovable (Cep, nren, lim) se podrá aplicar de forma independiente a cada una de las partes del edificio con uso diferenciado. Para el caso de usos distintos al residencial privado con distintos niveles de carga interna, el valor límite del conjunto se podrá obtener ponderando por superficie los valores límite de cada parte con carga interna diferenciada.

1.1.2. Limitación del consumo de energía primaria total.

El consumo energético de energía primaria total del edificio no debe superar el valor límite (Cep, tot, lim) no debe superar 70 kWh/m<sup>2</sup>año.

Donde:

– Cep, tot, lim = valor global de la energía primaria que es necesario suministrar a los sistemas (calefacción, refrigeración y Agua Caliente Sanitaria, ventilación, control de la humedad y, en su caso, iluminación). Incluye tanto la energía suministrada y la producida in situ, como la extraída del medio ambiente.

En edificios que tengan unidades de uso residencial privado (viviendas y alojamientos dotacionales) junto a otras de distinto uso, el valor límite del consumo de energía primaria total (Cep, tot, lim) se podrá aplicar de forma independiente a cada una de las partes del edificio con uso diferenciado. Para el caso de usos distintos al residencial privado con distintos niveles de carga interna, el valor límite del conjunto se podrá obtener ponderando por superficie los valores límite de cada parte con carga interna diferenciada.

1.2. Condiciones para el control de la demanda energética.

1.2.1. Transmitancia de la envolvente térmica.

El coeficiente global de transmisión de calor a través de la envolvente térmica (K) del edificio, o parte del mismo, con uso residencial privado, no superará los siguientes valores límite (Klim); calculado según CTE DB-HE1:

1. taula.2.1 K<sub>lim</sub> gehieneko balioa [W/m<sup>2</sup>K] salmenta libreko etxebizitzan

Trinkotasuna (V/A) [m <sup>3</sup> /m <sup>2</sup> ]	Klim [W/m <sup>2</sup> K]
V/A <= 1	0,48
V/A >= 4	0,67
Tarteko trinkotasunen gehieneko balioak (1<V/A<4) lortzen dira interpolazio bidez.	

Tabla 1.2.1 Valor límite K<sub>lim</sub> [W/m<sup>2</sup>K] para vivienda de venta libre

Compacidad V/A [m <sup>3</sup> /m <sup>2</sup> ]	Klim [W/m <sup>2</sup> K]
V/A <= 1	0,48
V/A >= 4	0,67
Los valores límite de las compacidades intermedias (1<V/A<4) se obtienen por interpolación.	

Non:

– K: inguratzailearen truke termikoko azalerarako beroaren transmisio koefizientearen batez besteko balioa;  $W/m^2K$ -tan adierazten da.

– Trinkotasuna (V/A): Eraikinaren (edo eraikin zatiaren) inguratzaile termikoak hartutako bolumenaren (V) eta inguratzaile horren truke termikoko azalaren baturaren arteko erlazioa ( $A = \sum A_i$ ).  $m^3/m^2$ -tan adierazten da. Mehelinak adiabatikotzat hartzen dira eta truke termikoko azalaren zenbaketatik kanpo uzten dira trinkotasunaren kalkuluan.

Igerileku girotuak eraikitzen badira, egiturak termikoki isolatu beharko dira, bai lurrarekin kontaktuan badaude bai airearekin kontaktuan badaude. Egituraren inguratzailea osatzen duten elementuen transmitantzia termikoa ezin da izan  $0,41 W/(m^2k)$  baino handiagoa.

#### 1.2.2. Inguratzaile termikoaren eguzki kontrola.

Eguzki kontrolaren parametroak (qsol;jul, gaztelaniaz), uztailko eguzki irabazien (Qsol;jul) –eguzki babes mugikorak aktibatutzat emanik– eta azalera erabilgarriaren (Autil) arteko erlazio gisa lortua, ez du gaindituko  $2,00 kWh/m^2$  hilabeteko gehieneko balioa, CTE DB-HE1 kodearen arabera kalkulatu.

Non:

– qsol;jul: inguratzaile termikoaren bao guztien uztailko eguzki irabazien (Qsol;jul), eguzki babesak aktibatuta egonik, eta eraikinaren azalera erabilgarriaren (Autil) arteko erlazioa.

